TODO EL ARTE ES CONTEMPORÁNEO
ARTE ORO GARAIKIDEA DA

CAPILLA
KAPERA

MAITE LEYÚN
SINTAXIS DE FORMA
FORMAREN SINTAXIA

EXPOSICIÓN 14 MAYO 2025 – 22 MARZO 2026
ERAKUSKETA 2025 MAIATZA 14 – 2026 MARTXOA 22

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

A Milo y Telmo / Milo eta Telmori

Proyecto / Proiektua
Maite Leyún

Organización y producción / Antolaketa eta ekoizpena
Museo de Navarra

Diseño museográfico / Diseinu museografikoa
Ana García Díez

Coordinación / Koordinazioa
Carmen Valdés Sagüés

Conservación / Kontserbazioa
Artres

Transporte y montaje / Garraioa eta muntaketa
Moreno Vallés, TransportaArte, S.L.

Iluminación / Argiztapena
Félix Mendía Villanueva

Producción gráfica / Ekoizpen grafikoa
La Cartelería

Texto / Testua
Iker Fidalgo Alday

Fotografías / Argazkiak
José Luis Larrión

Traducción / Itzulpena
Euskarabidea

Impresión / Imprimaketa
Idazluma

Edición / Edizioa
Gobierno de Navarra
Departamento de Cultura, Deporte y Turismo
Nafarroako Gobernua
Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua

© de la presente edición / argitalpen honena
Gobierno de Navarra, Pamplona, 2025
Nafarroako Gobernua, Iruña, 2025

© del texto / testuarena
Su autor / Bere egilea

© de las fotografías / argazkiak
Su autor / Bere egilea

DL NA 1169-2025

Agradecimientos / Eskerrak
Mawa Ordúñez
Jose M.ª Herrera
Ander Barragán
Unai Barroeta
Iker Fidalgo

IKER FIDALGO ALDAY
ENTRE ALTARES Y ESPEJOS / ALDARE ETA ISPILUEN ARTEAN

Cerca de los puestos del mercado de San Cristóbal de las Casas en Chiapas, México, existe una pequeña terminal de autobuses que ofrece por pocos pesos el transporte a San Juan Chamula. A menos de quince kilómetros y tras superar el desnivel que provoca el acceso a las zonas más altas del Estado, la furgoneta se detiene y abre sus puertas.
El lugar posee un carácter muy diferente a lo que puede verse media hora antes. Si bien se trata de un destino con mucho turismo, la calle no sufre el bullicio de los escenarios habituales donde pasean extranjeros. La población de casi cinco mil habitantes, conocidos como chamulas, está compuesta principalmente por tzotziles, pueblo originario mayense. Ante cada visita, hacen su vida sin prestar mucha atención a quienes, curiosos, se acercan cargados con mochilas y cámaras de fotos.
Durante la evangelización del siglo XV, la imaginería católica entró en contacto con las creencias nativas creando un proceso de sincretismo religioso presente hasta nuestros días. Del siglo XVI es el templo de San Juan Bautista, una iglesia de arquitectura colonial, alrededor del cual discurre la vida diaria de San Juan Chamula. La iglesia, de fachada blanca, posee en su entrada un arco de color verde y turquesa adornado con motivos prehispánicos. En un primer vistazo, se observa como el templo alberga una gran vida interior, pues los chamulas

San Cristóbal de las Casasen (Chiapas, Mexiko), azokako postuetatik hurbil, autobus-geltoki txiki bat dago, eta hantxe hartzen da San Juan Chamulara joateko garraioa, peso gutxi batzuen truke. Hamabost kilometro baino gutxiagora, estatuko eremurik altuenetara iristeko malda gainditu ondoan, furgoneta gelditu eta ateak ireki dira.
Tokia oso bestelakoa da ordu erdi lehenago ikusten zenaren aldean. Turismo handiko helmuga den arren, kalean ez dago zalapartarik, atzerritarrak ibili ohi diren tokietan ez bezala. Ia bost mila lagun bizi dira herrian. Chamula esaten diete, eta batez ere tzotzilak dira, maiak jatorriz. Bisitarien aurrean, beren bizia egiten dute, arreta handirik jarri gabe motxila bizkarrean eta argazki-kamera eskuan datozen kuxkuxeroei.
XV. mendeko ebanjelizazioan, iruditeria katolikoa harremanetan jarri zen tokiko sinesmenekin, eta sinkretismo erlĩjiosoko prozesu bat abiatu zen, gaur egun arte iraun duena. XVI. mendekoa da San Joan Bataiatzailearen tenplua. Arkitektura kolonialeko eliza bat da, eta haren inguruan gertatzen da San Juan Chamulako eguneroko bizitza. Elizak fatxada zuria du, eta sarreran arku berde eta turkesa bat dauka, motibo prehispanikoz apaindua. Lehen begiratuan, nabarmena da tenpluaren barnean bizitasun handia dagoela, chamulak etengabe sartzen

no dejan de entrar y salir de él a cualquier hora del día.
Acceder a la iglesia es transportarse a una nueva atmósfera. La zona central, normalmente plagada de bancos, está totalmente vaciada. En su lugar, el terreno está cubierto de ramas de pino que crujen en cada pisada. El olor de este árbol sagrado para los tzotziles se vuelve aún más denso e intenso por la escasa iluminación. Entre la oscuridad se descubre a familias arrodilladas creando pequeños círculos alrededor de botellas y velas, reunidas junto al tintineo de los diminutos puntos de luz que alumbran los hilos de humo fluyendo hacia el techo. En el suelo, como parte de un rito de purificación que se lleva a cabo dentro de la misma estancia, suele haber gallos sacrificados con su correspondiente reguero de sangre y el perfume metálico del fluido seco.
Los laterales de esta iglesia, en la que no existe presencia de ningún sacerdote, están plagados de imágenes de santos, que, entre el humo de las velas y las hierbas quemadas, se distinguen encerrados en sus altares. Algunos de ellos, aparecen castigados, vueltos contra la pared, por no haber cumplido con los ruegos que les habían sido encomendados. Los santos llevan colgando espejos que cumplen una doble función. Por un lado, provoca a quien les observa encontrarse con su mirada reflejada. De esta manera permite al creyente confesarse frente

eta ateratzen baitira, eguneko edozein ordutan.
Elizara sartzean, atmosfera berri batera sartzen gara. Erdialdea, bankuz beterik egon ohi dena, huts-hutsik dago. Horren ordez, zorua pinu-adarrez estalita dago, eta urrats bakoitzean kraska egiten dute. Tzotzilentzat sakratua da zuhaitz hori, eta, argi ahularen pean, are sendoagoa eta biziagoa da haren usaina. Iluntasunean, zenbait familia sumatzen dira, zirkulu txikitan bildurik, botila eta kandelen inguruan. Ke-hariak sabairantz igotzen dira, puntu ñimiño dardarkariek argituta. Zoruan, aretoan berean egiten den garbiketa-erritu baten erakusgarri, oilar sakrifikatuak egon ohi dira, odol-lorratz eta guzti, isurkari lehorraren metal-usaina lagun.
Elizan ez dago apaizik inon, eta alboetan hamaika santuren irudiak ageri dira, zein bere aldarean, kandelek eta belar erreek hedatutako kearen artean. Haietako batzuk zigortuta daude, hormari begira, haiei egindako eskaerak bete ez dituztelako. Santuek ispiluak daramatzate zintzilik, helburu bitariko batekin. Batetik, behatzaileari begirada itzultzen diote islaturik. Horrela, fededunak aukera du bere fedearen aurrean konfesatzeko, bekoz beko, chamulek ez baitiote beren buruari engainatzen. Bestalde, espazioak beste dimentsio bat hartzen du. Zaila bazen jada ilunpeko barne-arkitektura ulertzea, ispiluek beste mundu batzuetarako leihoak

a frente con quien es portador de la fe, pues los chamulas no se engañan a sí mismos. Por otro lado, el espacio adquiere una nueva dimensión. Si ya es difícil entender la arquitectura interna entre la oscuridad, los espejos aparecen como ventanas a otros mundos. Los reflejos, el encuentro con otros cuerpos y la alteración de las perspectivas llevan la experiencia sensorial a lugares mucho más extremos que lo que supone una visita habitual a cualquier iglesia que podamos conocer.

De San Juan Chamula subyace lo ilusorio. Es el engaño visual y la confrontación con el uso de un templo totalmente novedoso para la mirada occidental. Lo ritual se centra en la experiencia colectiva del estar, bien de rodillas, sobre las ramas de pino, o rindiendo cuentas con alguno de los santos de la pared.

La antigua capilla del que fue Hospital de Nuestra Señora de la Misericordia presenta también su espacio central vacío. Las tablillas del suelo de madera proponen una gama de colores ocres y marrones que son el previo a una puesta en escena claramente marcada por el dorado del retablo que ocupa, en el presbiterio, el lugar protagonista. Sin embargo, antes de llegar a él, justo a la derecha, encontramos otra pieza. Un retablo de San Juan Bautista, realizado también en el siglo XVI. Mismo protagonista y mismo siglo. Dos características que conectan dos lugares tan remotos como San Juan Chamula y Pamplona.

irekitzen dituzte. Islak, beste gorputz batzuekin topo egitea, perspektibak aldaraztea... Horrek guztiak muturreko tokietara eramaten ditu zentzumenak, hurbileko edozein eliza bisitatu ohi dugunean baino askoz haratago.

San Juan Chamulan ameskeria azaleratzen da. Engainu bisuala da, tenpluaren erabilera guztiz berritzailea mendebaldeko begiradaren pean. Errituak bizipen kolektiboa du ardatz; hor egotea, belaunikaturik pinu-adarren gainean, edo paretako santuren bati kontu emanez.

Errukiaren Andre Mariaren ospitalea izandakoaren kapera zaharrean ere, erdigunea hutsik dago. Zurezko zoruaren oholtxoek okrearen eta marroiaren arteko kolore sorta bat proposatzen dute urre-koloreko erretaula begien aurrera agertu aurretik, hark hartzen baitu toki nagusia, presbiterioan. Hala ere, hartara iritsi aurretik, eskuinean, beste pieza bat aurkituko dugu. San Joan Bataiatzailearen erretaula bat, hura ere XVI. mendean egina. Protagonista bera eta mende bera. Bi ezaugarri horiek urruneko bi toki lotzen dituzte: San Juan Chamula eta Iruña.

Maite Leyunen "Formaren sintaxia" aretoan zabalduta dago, mapa bat balitz bezala. Pieza bakoitzak koordenatu bat betetzen du, eta batetik bestera salto egin dezakegu, piezak elkarren artean lotu, ibilbidea desegin eta beste bide bat hartu.

La exposición “Sintaxis de forma” de Maite Leyún se despliega sobre la sala, como un mapa. Las piezas ocupan diversas coordenadas que nos permiten saltar de una a otra, conectarlas entre sí para volver a desandar el recorrido e iniciar una nueva vuelta. Un viaje en el que el engaño, o tal vez la evidencia de que no todo es como parece que es, acaba por dirigir la brújula de nuestra deriva. Lo matérico actúa como frágil cuando, en realidad, se agarra al firme del suelo como queriendo renegar de la posibilidad de flotar mientras un tótem de colores soporta sobre su forma el peso de la cultura popular y la nostalgia.

En esta aventura nos topamos de nuevo con otros espejos, pero esta vez cercanos a la línea del suelo. Gracias a ellos, la capilla deja de tener forma de cruz para elevarse hacia otra dimensión en la que todo son rebotes de luz, puntos de vista que se reencuadran y el reflejo de nuestros cuerpos, otra vez, interpelando nuestra mirada. Si en San Juan Chamula se refleja nuestra cara y torso, en Pamplona las piernas se convierten en una maraña de líneas que circulan entre las obras, completando así ambas partes de una figura humana. Recorrer la sala es también aquí un acto ritual. Una distorsión de la estancia para ser otra cosa: el templo convertido en museo, o, mejor dicho, el museo convertido en templo.

Puede que, si nos acercamos lo suficiente y entornamos la vista entre

Bidaia horretan, engainuak edo, beharbada, itxura ororen atzean beste zerbait dagoela ohartzeak gidatzen du gure jitoaren iparrorratza. Materia hauskor ageri da, nahiz eta egiazki zoruari irmo lotzen zaion, flotatzeko aukerari uko egin nahian bezala, eta, aldi berean, koloretako totem baten gainean zamaturik daude kultura herrikoia eta nostalgia. Abentura honetan, ispilu batzuk topatuko ditugu berriz ere, zoruaren lerrotik hurbil oraingoan. Haiei esker, kaperak jada ez du gurutze-forma, eta beste dimentsio baterantz goratzen da, non dena baitira argiaren erreboteak, birkokatzen diren ikuspuntuak eta gure gorputzen islak, gure begirada erakartzen dutenak. San Juan Chamulan gure aurpegia eta gorputz-enborra islatzen ziren; Iruñean, berriz, hankak obren artean mugitzen dira, lerroen nahaspila bilakatuta, eta giza irudi baten bi zatiak osatzen dira horrela. Aretoan ibiltzea, hemen ere, erritu-ekintza da. Aretoaren distortsioa beste zerbait izateko: tenplua museo bilakatua edo, hobeki esanda, museoa tenplu bilakatua.

Agian, behar adina hurbilduz gero eta hormatxoetako ispiluen eta piezen artean begiratuz gero, “Formaren sintaxia” erakusketak aukera emanen digu gure pertzepzioa desorientatzeko eta ulertzeko aurrean duguna beti ez dela dirudien hori. Are, agian, pinuaren edo odol lehorraren usain izpi bat adituko dugu, edo bat-batean ikusmena lausotuko zaigu eta beste

las piezas y los espejos de los muretes, “Sintaxis de forma” nos permita desorientar nuestra percepción y entender que aquello que tenemos delante no es siempre lo que parece que es. Puede que incluso nos llegue algo del olor a pino o a sangre seca o que de repente se nos nuble la vista y nos transporte a otro lugar diferente al que estamos. Como si se quebrara el espacio sobre sí mismo y pudiéramos saltar a otra parte en un instante tan corto como un parpadeo.
O quizás el arte lo haya vuelto a conseguir y nos haya vuelto a dejar creer que aquello que parece real es en definitiva una simulación acordada. Un punto de entrada a una realidad que existe solo en la propia práctica artística. Ese pacto en el que aceptamos que una pieza habita un lugar durante un periodo de tiempo y que nos invita a conocer su propio mundo, que es, en el fondo, el nuestro. Un acto colectivo en el que lo imaginado es tan real como la tierra sobre la que avanzamos. Tan necesario como forrar el suelo con ramas de un árbol sagrado. ¿No es acaso lo que necesitamos?

toki batera eramanen gaitu. Espazioa bere baitara hautsiko balitz bezala, begi-kliska batean beste norabait salto egin bagenezake bezala.
Edo, beharbada, arteak horixe lortu du berriz ere, sinetsarazi digu benetakoa dirudien hori, azken batean, adostutako simulazio bat dela. Norberaren praktika artistikoan ez beste inon dagoen errealitate baterako sarbidea. Itun horretan, onartzen dugu pieza batek toki bat hartzen duela denboraldi baterako, eta haren mundua ezagutzera gonbidatzen gaituela, zeina, azken batean, gure mundua baita. Ekintza kolektibo bat da, non irudikatzen dugun hori benetakoa baita, zapaltzen dugun lurra bezain erreala. Zorua zuhaitz sakratu baten adarrez estaltzea bezain beharrezkoa. Ez al da hori behar duguna?

Maite Leyún
(Pamplona, 1986) es doctora en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco. Su obra toma en muchas ocasiones y de forma natural la cerámica como punto de partida con un carácter multidisciplinar. Tanto los materiales que utiliza como las formas que busca se vinculan siempre a la realidad contemporánea, sin prestar atención a las fronteras creadas entre la escultura, la instalación, el diseño o la *performance*; con su trabajo trata de generar volúmenes que sean capaces de ser cuestión y pregunta a la vez.
A lo largo de su trayectoria ha participado en diferentes exposiciones nacionales e internacionales entre las que destacan las celebradas en el marco del Premio Internacional Cerco en Zaragoza, Premio Máximo Ramos en Ferrol, Bienal Internacional Cerámica de Marratxí, Concurso Internacional de Cerámica de L'Alcora, Gureak Euskaditik Mexikora en Mexico DF, *Progress in work. Work in crisis* en Limoges y Bilbao, entre otras. También de manera individual su obra ha sido mostrada en espacios como Galería Base en Bilbao, ICSHU en Hungría o TNNUA en Taiwán. Ha recibido diferentes premios y becas entre las que destacan Ertibil Bizkaia, residencia artística en Paradise Air en Japón, Beca Fundación BilbaoArte o Beca de Residencia en International Ceramic Studio en Hungría.
Actualmente su práctica artística

Maite Leyún
(Iruña, 1986) Arte Ederretako doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Haren lanak, maiz eta modu naturalean, zeramika hartzen du abiapuntutzat, askotariko diziplinak kontuan hartuta. Erabiltzen dituen materialak eta bilatzen dituen formak loturik daude beti errealitate garaikidearekin, eta ez dio arretarik jartzen eskulturaren, instalazioaren, diseinuaren edo performancearen artean sortu diren mugei. Haren lanarekin, saiatzen da aldi berean gaia eta galdera diren bolumenak sortzen.
Bere ibilbidean, estatuko eta nazioarteko hainbat erakusketatan parte hartu du; besteak beste, Zaragozako Cerco Nazioarteko Sariaren esparruan; Ferroleko Máximo Ramos Sarian; Marratxiko Zeramikaren Nazioarteko Bienalean; Alcorako Zeramikaren Nazioarteko Lehiaketan; "Gureak Euskaditik Mexikora" zikloan, Mexiko Hirian, eta "Progress in work, Work in crisis" proiektuan, Limogesen eta Bilbon. Bakarkako erakusketak ere egin ditu, besteak beste, Bilboko BASE galerian, Hungariako ICSHU zentroan eta Taiwango TNNUA unibertsitatean. Hainbat sari eta beka jaso ditu, hala nola Ertibil Bizkaia saria, arte-egonaldia Japoniako Paradise Air programan, BilbaoArte fundazioaren beka eta Hungariako International Ceramic Studio zentroan egonaldia egiteko beka.

se complementa con diferentes proyectos relacionados con el campo del diseño, la docencia y la investigación.

Gaur egun, praktika artistikoaren osagarri, diseinuaren, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arloko zenbait proiektutan dabil.

OBRAS EXPUESTAS
ERAKUSKETAKO OBRAK

Sintaxis 1
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 10 unidades de letras / 10 letra-unitatek osatzen dute konposizioa

70 x 50 x 50 cm*

Sintaxis 2
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 8 unidades de letras: 5 unidas y 3 sueltas / 8 letra-unitatek osatzen dute konposizioa: 5 lotuta eta 3 solte

90 x 120 x 56 cm*

Sintaxis 3
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 7 unidades de letras: 6 unidas y 1 suelta / 7 letra-unitatek osatzen dute konposizioa: 6 lotuta eta 1 solte

77 x 65 x 53 cm*

Sintaxis 4
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 8 unidades de letra / 8 letra-unitatek osatzen dute konposizioa

90 x 48 x 37 cm*

Sintaxis 5
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 7 unidades de letras: 5 unidas y 2 sueltas / 7 letra-unitatek osatzen dute konposizioa: 5 lotuta eta 2 solte

93 x 75 x 44 cm*

Sintaxis 6
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 8 unidades de letras: 6 unidas y 2 sueltas / 8 letra-unitatek osatzen dute konposizioa: 6 lotuta eta 2 solte

70 x 96 x 56 cm*

Sintaxis 7
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 9 unidades de letras: 8 unidas y 1 suelta / 9 letra-unitatek osatzen dute konposizioa: 8 lotuta eta 1 solte

84 x 68 x 55 cm*

Sintaxis 8
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 10 unidades de letras: 5 unidas, 4 unidas y 1 suelta / 10 letra-unitatek osatzen dute konposizioa: 5 lotuta, 4 lotuta eta 1 solte

95 x 72 x 41 cm*

Sintaxis 9
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 9 unidades de letras y un corazón / 9 letra-unitatek eta bihotz batek osatzen dute konposizioa

93 x 54 x 42 cm*

Sintaxis 10
2024

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 8 unidades de letras: 7 unidas y 1 suelta / 8 letra-unitatek osatzen dute konposizioa: 7 lotuta eta 1 solte

76 x 76 x 50 cm*

Sintaxis 11
2025

Cerámica esmaltada / Zeramika esmaltatua

Composición formada por 13 unidades de letras: 6 unidas, 4 unidas y 3 unidas / 13 letra-unitatek osatzen dute konposizioa: 6 lotuta, 4 lotuta eta 3 lotuta

120 x 100 x 57 cm*

*Medidas aproximadas / Gutxi gorabeherako neurriak

Tótem
2025

Cerámica esmaltada, varilla roscada, tubo, tuercas, arandelas y base de hormigón / Zeramika esmaltatua, hagaxka hariztatua, tutua, azkoinak, zirrindolak eta hormigoizko oinarria

Composición formada por 10 piezas / 10 piezak osatzen dute konposizioa

240 x 50 x 50 cm*

Kitty & Co.

2019

Porcelana coloreada / Portzelana koloreztatua

Composición formada por 9 figuras / 9 figurak osatzen dute konposizioa

Medidas variables / Neurri aldagarriak

Colección Museo de Navarra / Nafarroako Museoaren bilduma



DE NAVARRA MUSEOA NAFARROAKO

TODO EL ARTE ES CONTEMPORÁNEO
ARTE ORO GARAIKIDEA DA

SANTO DOMINGO, 47. 31001 PAMPLONA
WWW.MUSEODENAVARRA.NAVARRA.ES